

SAGARRA ETA SAGARDUA.

Lore ederra mundura zera
 osto tartian etortzen,
 arbol-adarrak zintzilik zaitu
 gustora ongi azitzen,
 denborarekin gorputza zaizu
 chit borobilla gelditzen,
 aize eguzki eta eudiyak
 zaituztelako mantentzen.
 Baño gerora gerriyatetik
 asitzen zera sentitzen,
 eziñ egonak dituzu eta
 indarrak zaizkitzu aitzen,
 ala gertatzen zeran denboran
 ama arbolak utzitzen
 zaitu, orduan golpez lurrera
 amilka zera erortzen.
 Lurren gañean gelditzen zera
 neke ta penak sufritzen,
 ikusi-arren trantze char ortan
 zutzaz ezdira kupitzen;
 usteltzeraño etorririkan
 mundubaz dezu etsitzen,
 orduan zutzaz oroiturikan
 noizbait zaituzte jasotzen.
 ¡Jaso zaituzte! eta gerora
 ¿zer da zurekin gertatzen?
 borrero oyek, bai, sentenziya
 iltzeko dizute sortzen;

presondegi zar aundi batera
 bultzaka zaituzte sartzen,
 mazoz zanpatuz gorputz guztiya
 dizute bertan urratzen.
 Izerdi odol daukazkitzunak
 azkar dizkitzute kentzen,
 azal utsera biurtu arte
 guztiyak prentsan estutzen
 aritzen dira, eta nola zu
 chetuba zeran gelditzen,
 geiago sufri eziñik zera
 martirizatuba iltzen.
 Zure bertute, da esatea,
 zumoa zaizuna biltzen
 zulo batean, (au da kupela)
 ondo zaituzte gordetzen;
 juizioko eguna ere
 noiz bait zaizu irichitzen,
 eta mundura bigarren chandan
 piztuba zera etortzen.
 ¡Ai! zeñen gauza ederra eta
 garbiya zeran azaltzen;
 euskaldun denok zureganuntza
 pozkidaz gerade biltzen;
 bakoitzak bere aldetik milla
 esker dizkitzu ematen;
 ta gero zure zumo gozoa
 gustora degu edaten.

JOSÉ ARTOLA.